

EUSKARALDIA ENTITATEETAN GAUZATZEKO IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

SARRERA

2018ko bigarren seihilekoan Euskaraldiaren bigarren edizioaren oinarriak zirriborrazteko lana egin dute Garapen Talde izendatutako euskalgintzako zenbait eragilek. Taldeko partaide izan dira Arrate Illaro (Euskaltzaleen Topagunea), Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra), Maddi Etxebarria (Elhuyar Elkarte), Iñaki Arruti (Lasarte-Oria Udaleko Euskara Zerbitzua) eta Pello Jauregi (Euskal Herriko Unibertsitatea).

Urriaren erdialdean zirriborro bat aurkeztu zien Garapen Taldeak Euskaraldiko Koordinazio Mahaia osatzen duten erakundeei eta beste zenbait eragileri. Ekarpenean interesgarriak jaso ziren atzera. Ekarpenean horiek balio izan zuten 2019ko urtarrilean zabaltzen den ekimenaren proposamena osatzeko.

Dokumentu honetan, proposamena osatzeko Garapen Taldeak definitutako ikuspegi estrategikoa bildu da. Kontuan izan behar da bertan jaso dena entitateen parte hartzeari dagokion atala dela; norbanakoen parte hartzea lantzeko oinarri teorikoak 2018ko edizioakoak dira.

IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

Begirada nagusia: euskara-egilearena

Ikuspegi honen begirada nagusia euskara-egilearena da, hots, euskaraz egin nahi duen pertsonarena. Zein da *euskara-egile* batek behar dituen gutxieneko baldintza gizarte-eremu jakin batean (hots, eremu horretan dauden hizkuntza-harreman guztietan) euskaraz egin ahal izateko?

Hizkuntza-ulermenean jarriko genuke gutxieneko baldintza hori. Hala, eremuko kide guztiek euskara ulertu beharko lukete,- gutxienez erdiko gaitasuna edukita-, euskara-egile batek ohituraz eta modu zabalean euskaraz egin ahal izateko. Suposatzen dugu, bestalde, euskara-egileek gutxieneko baldintza hori baliatuta euskaraz egiten dutenean, euskaraz egiteko beharra eragingo dutela inguruko kide askorengan, egokitze simetrikoaren mekanismoari esker¹. Hauengandik esango genuke euskarara

¹ Egokitze simetrikoaren mekanismoa da hainbat hizkuntza-egoerek sor dezaketen atsekabea (disonantzia kognitiboa) apaltzeko jokaera mota bat. Atsekabea, esaterako, maiz sumatzen du batek, solaskideak euskaraz egin, eta bera bere barne hartan kontraesanean dauden bi sententzietatik batetik: batetik, euskaraz aritzeko gauza dela, eta berriz besteaz, erdaraz erantzutea nahiago duela. Suposatuz solaskideak euskarari eusten diola gerora ere, seguru asko gure lagun "atsekabetuak" euskaraz egitera joko du, sentituz hori dela irtenbiderik zentzuzkoena edo

egokitu egiten direla: *euskarara egokituak*, beraz. Bestalde, suposatzen dugu edozein dinamika eginda ere hainbat kide ez direla euskarara egokituko, euskara-egileek haiei euskaraz egin arren. Kide hauek *erdara-egile* gisa jokatuko dute, baina euskara ulertzen duten neurrian, beren jokaera jada ez da oztopo, traba edo eragozpen gaindiezina izango euskara-egile batentzat, baldin eta ele biko elkarrizketei heltzeko prest balego. Beraz, hiru jokaera mota antzematen ditugu euskaraz egiteko gutxieneko baldintzak dituzten gizarte-eremuetan: euskaraz egin nahi duenarena (euskara-egilea), euskara entzutean euskarara egokitzen denarena (euskarara egokitua), eta euskara entzun arren erdaraz jarraitzen duenarena (erdara-egilea).

Eremu kontzeptua

Eremu kontzeptua zentrala da ikuspegi estrategiko honetan. Hasteko, gogoan hartzen ari gara harreman-sare batean kide guztien artean izan daitezkeen harreman mota guztiak. Bertan sartzen dira, beraz, biko, hiruko, lauко edo talde osoko konbinaketa guztiak.

Halako eremuetan *badira erabakiak hartzeko prozedura* jakin batzuk (bilerak, zuzendaritza organoak, hauteskundeak...), badira *eskumen* jakin batzuk (zer gaiez erabaki dezaketen, eta zer gaiez ez), eta bada, azkenik, *eragin-esparruaren definizioa* (zehazki jakitea erabakiak nori aplikatzen zaizkion eta nori ez). Hiru osagai hauek ematen dizkiote eremu bati identitatea, egitura eta zilegitasuna. Eta hirurak agertzen dira testuinguru edozein dela ere, hala nola, eremu *informaletan* (lagunarte batean, esaterako), eremu *ez-formaletan* (herri bateko kirol elkarte txiki batean, esaterako) edo eremu *formaletan* (udaletxe batean, esaterako). Beraz, testuinguruak testuinguru, eremu bat zehazteko garaian kontuan hartu behar da *ea jende-multzo bati hainbat gaitan erabakiak hartzeko zilegitasuna ezagutzen zaion, eta, ondorioz, erabakia kide guztiei aplikatzen zaion*.

Eremu kontzeptua aplika dakioke *talde natural* bati (bikote sentimental bat, familia bat, lagunarte bat...), *erakunde* bati (zuzendaritza taldea, salmenta saila, mekanika saila...), edo *eremu geografiko* bati (Araba, Iparralde, Euskal Herria...).

Hizkuntza-eremuak

Gizarte-eremu hauek hizkuntzaren ikuspegitik trinkoak edo zulatuak izan daitezke. *Eremu trinkoetan* hizkuntza bat eremuko harreman guztietan erabil daiteke, eta behin hizkuntza-hautu bat eginez gero, hautu horri eutsi dakioke egoera guztietan eta pertsona guztiekin aritutakoan, modu etengabe eta automatikoan (ohiturazkoan) alegia. *Eremu zulatuetan*, ordea, hizkuntza bat ezin da harreman guztietan erabili,

eta hiztunak etengabe hautatu, zehaztu eta berezi behar du norekin egin dezakeen eta norekin ezin duen egin.

Euskara usu eta zabal erabiltzearen “partida” jokatzen hasteko gutxieneko baldintzak **Belarriprest Eremu** batean biltzen dira: eremu batean non edozein kidek edonorekin euskaraz egin dezakeen, denek ulertzen diotelako. Orduan zabal dezake euskara-egileak bere ahal guztia, eta aurre egin diezaioke benetan eta baldintza berdintsuagotan erdararen erabilera ohikoari. Bien bitartean hartara iristeko egiten den guztia “entrenamendu” gisa har daiteke, ez da partida.

Partida joka daiteke bi **Belarriprest Eremutan**. Lehena, **Belarriprest Eremu Arrunta** da, kide guztiak euskara ulertzeko gaitasun ona edo nahiko ona dutelako, eta, ondorioz, bertan elkarrizketa guztiak euskaraz erosotasunez egin daitezkeelako. Bigarrena, **Belarriprest Eremu Oinarrizkoa** da, tartean badirelako euskara ulertzeko erdiko gaitasuna dutenak, eta, ondorioz, haiekiko euskarazko elkarrizketa egin badaiteke ere, ahalegina eskatzen diolako solaskideari (hizkera moldatua edo erraztua erabili behar, esanahia negoziatzeko prest egon behar, ele biko elkarrizketei eusteko prest egon behar..., hau da: ulerrizketa-kompetentziak)

Partida, ordea, ezin da jokatu **Erdal Eremuetan**², bertan badirelako euskara ulertzen ez duten edo oso gutxi ulertzen duten kideak, eta, horrek ezinezko egiten du euskarazko komunikazioa, adierazpen sinboliko txiki batzuk izan ezik.

Partida benetan jokatzen hasten denean, hiztunen hizkuntza-jokaerak berak erabaki dezake zein hizkuntzak bereganatzen duen taldearen funtzionaltasun komunikatiboa. Funtzionaltasun horrek zehaztuko du taldearen hizkuntza-araua. Hizkuntza-arau horrek, era berean, kideen hizkuntza-jokaera automatiko eta ohikoa indartuko du. Ahobizitasuna da euskal taldearen jokaera lehia horretan. Nagusituz gero, Belarriprest Eremua **Ahobizi Eremu** bilaka daiteke³.

Hizkuntza-eremu homogeneoen beharra (Belarriprest Eremuak) oso handia da hizkuntza-ohitura berria finkatzeari begira. Hizkuntza-ohitze prozesuak ariketa etengabea eskatzen du, eta prozesu horretan hasierako ahalegin eta arreta kontzienteak jarduera automatiko eta pentsatu gabeari uzten dio toki. Kontzientziarik inkontzientziarako igarobidea da. Igarobide hori izugarri zailtzen da hizkuntza-eremu

² Euskararen ulermenean dagoen hutsunea adierazteko balio lezake izendapen honek. Hala ere, ikuspuntu zorrotzetik begiratuta, ez da izendapen zuzena, zeren Belarriprest Eremuak ere berez Erdal eremuak baitira. Belarriprest Eremu batean kide guztiak gaztelania edo frantsesa ere ulertzen dute, euskara ulertzeaz gain. Ikuspuntu horretatik, Belarriprest Eremuak dira benetako eremu elebidunak, kide guztiak bi hizkuntzak ulertzen dituztelako, eta hortaz, aldi berean dira Euskal Eremuak eta Erdal Eremuak.

³ Ahobizi Eremu batean badira pertsona batzuk euskara-egile gisa jokatzen dutenak, baina ez modu zatituan (tarteka eta kide batzuekin), baizik modu homogeneoan (beti, ohituraz, kide guztiak eta egoera guztietan). Ahobizi Eremu batean euskara-egileak euskara besterik ez du erabiltzen, bai euskaraz erantzuten diotenekin, bai eta erdaraz erantzuten diotenekin ere, den-denek euskara ulertzen dutelako, eta ez dagoelako euskaraz arituta komunikazio arazorik edo zailtasunik. Halaxe ari gara hemen irudikatzen gutxieneko hizkuntza-eremu normalizatu bat, euskara-egilearen ikuspuntutik beti ere. Halako eremu batek ezinbesteko du kide guzti-guztiak euskara ulertzea (hots, Belarriprest Eremu izatea), baina hori ez da aski. Euskara-egileek sentitu behar dute, era berean, beren jokaera onartua dela. Bestetik, hizkuntza-ohitura aldatzeak dakarren arrotasun-aldia bizi behar da, norbere hautemateak moldatu artean. Azkenik, ele biko elkarrizketek sorturiko atsekabeari eusteko defentsa-mekanismoak eraiki behar dira. Belarriprest Eremu batean aukera edo posibilitatea dago euskaraz aritzeko, baina Ahobizi Eremu batean aukera hori errealtate egiten da, gauzatu eta gorpuztu egiten da.

zulatueta, non etengabe pentsatu behar den euskaraz norekin egin daitekeen eta norekin ez, non etengabe baloratu behar den taldearen osaketa jakiteko euskaraz egiterik dagoen ala ez. Hizkuntza-eremu trinkoek, ordea, aukera ematen dute hasierako ahalegin kontzientea jokaera automatiko bihurtzeko. Halakoetan, hala nahi duenak euskaraz jardun dezake pentsatu gabe, hizkuntza-hauturik etengabe egin beharrik izan gabe, eta monotonia edo iraunkortasun batean. Hizkuntza-eremu trinko edo homogeneoa aipatu eta Belarriprest Eremuak ekarri beharko genituzke gogora, Belarriprest Eremua definizioz baita eremu bat non kide guztiek euskara ulertzen duten. Halako jokalekutik abiatzen da Ahobizi Eremurantzako igarobidea. Belarriprest Eremu ez direnek ezin dute halako igarobiderik egin, ez dutelako horretarako behar adinako baldintza soziolinguistikorik. Halakoetan, baldintza soziolinguistikoak irauli behar dira (irakaskuntza eta erabilera sostengu sistema baten bidez), euskarazko komunikazioa eremu horretan etenik gabea izango bada.

Baldintza soziolinguistikoak aldatzeko zeregin horretan euskarazko komunikazioa funtsezko osagaia da. Euskarazko komunikazioak azkartzen du Belarriprest Eremuak osatzeko prozesua, eta aldi berean entrenamendu eta praktika soziolinguistikoak dakarkie halako eremuko kideei, gerora Ahobizi Eremu bihurtu ahal izateko.

Igarobideak

Hiru igarobide dira eremu batetik bestera, eta bakoitzean gako bana azpimarra daiteke:

1) Lehen igarobidea da Erdal Eremutik Belarriprest Eremu Oinarrizkora doana, eta **Ulermen Unibertsala** du gako nagusia. Ulermen Unibertsalak esan nahi du eremu horretako kide guztiek euskara ulertzen dutela, gutxienez erdiko gaitasunez, eta, hortaz, euskaraz egin nahi duenak aurrean duela zulorik gabeko hizkuntza-eremu trinko, jarrai eta homogeneoa euskaraz egin ahal izateko. Igarobide hau bi modutan egiten da: 1) berezko hazkunde begetatibo gisa, eta 2) erabaki zuzen eta kontziente baten ondorioz.

Hazkunde begetatiboa bereziki hezkuntza-sistemaren lanari zor zaio. Haren bidez, gero eta multzo handiagoek eskuratzen dute euskara ulertzeko gaitasuna, eta zeharka ugaritu egiten dira han eta hemen gizarte-eremuak non kide guztiek euskara ulertzen duten (Belarriprest Eremuak). Modu hau indartsua da euskarazko ulermena orokortzeko. Emaizak, ordea, ez dira azkar ikusten, epe ertainera egiten baitute lan.

Bigarren moduari dagokionez, prozesua erabaki zuzen eta kontziente bati lotzen zaio ororen gaintetik. Orduan, euskara ulertzeko gaitasuna eskuratzea izan daiteke norbanako batek hartzen duen erabakia, edo talde batek adostasun batez hartutako erabakia, edo erakunde batek bideratutako hizkuntza-plangintza baten ondorioa. Helduen euskalduntzeak hartzen du horretan protagonismo handia. Prozesu honek, ondo bidean, azkarragoa izan beharko luke hazkunde begetatiboarena baino, heldutasunean eta motibazio kontzientean oinarritutako prozesuak diren neurrian. Suposa daiteke ez direla ordu asko behar heldu batek euskara ulertzerantz iristeko (hitz egiteko behar den denbora, ordea, beste kontu bat da).

Eskola eta eremu babestuek toki garrantzitsua hartzen dute lantegi horretan, baina prozesua ezin da inolaz ere horretara mugatu. Eskola giroan helduek garatutako hizkuntza-trebetasunek ingurune naturaletan sostengu eta akuilua etengabe behar dute. Euskara ulertzea iritsi nahi duenak maiz bizi behar du eta sentitu euskaraz egin nahi duenaren euskarazko mintzaldi ulergarria. Funtsezko egiten da orduan **Erabilera Sostengu Sistema** bat berezko harremanetan, euskarazko erabilera errealean oinarrituta, kide horiek hizkuntza-gaitasuna azkar hobez dezaten, batez ere euskara ulertzeko gaitasunari dagokionez. Kide hauekiko euskarazko harremana ezin da erabatekoa izan, beren gaitasunak ez baitio intentsitate horri eusten, baina bai izan daiteke tartekoa, laburra eta gai errezetara mugatuta. Baina erabilera tarteko hori bezain garrantzitsua da jokoera hori denboran zehar iraunkor, konstante, sistematiko eta ohikoa izatea. Egunerokotasun horrek ematen dio Sostengu Sistemari hain zuzen ere izaera sistematikoa. Erabilera sostengu sistema honi bizialdia ematen zeregin handia izan dezake Euskaraldiak.

2) Bigarren igarobidea da Belarriprest Eremu Oinarrizkotik Belarriprest Eremu Arruntera doana, eta **Ulerrizketa** du gako nagusia. Ulerrizketa kontzeptuak trebetasun soziolinguistiko batzuk biltzen ditu bere baitan. Trebetasun horiek beharrezkoak dira euskarazko komunikazioa gertatu ahal izateko solaskideak eroso sentitzen ez direnean, artean solaskide batek tarteko ulermena baino ez duelako, eta, hortaz, komunikazio zailtasunak sortzen direlako.

Ulerrizketak jarrera aktiboa eskatzen die hala hizkuntza-gaitasun ona duenari nola tarteko gaitasuna duenari ere. Tarteko gaitasuna duenari, egiazta dezan ongi ulertzen ari ote den. Eta gaitasun ona duenari euskara erraza erabil dezan, eta komunikazio-arazoak sortzean beste esapide batzuk bila ditzan baina euskaratik atera gabe. Ulerrizketa-konpetentziaz baliatuta euskarazko komunikazioa nabarmen heda daiteke, eta eremuaren igarobidea bizkortu. Ordea, ulerrizketa-konpetentziarik erabili ezean, nekez ematen da euskarazko komunikazioa, eta eremuaren igarobidea (Eremu Oinarrizkotik Eremu Arruntera) ez da abiatzen. Ulerrizketa-konpetentziak zabaltzen zeregin handia har lezake Euskaraldiak (Ahobizi eta Belarriprest harreman asko eta asko eremu honetakoak baitira, bereziki Belarriprestek tarteko gaitasuna dutenean).

3) Hirugarren igarobidea da Belarriprest Eremu Arruntetik Ahobizi Eremura doana, eta **Ahobizitasuna** du gako nagusia. Ahobizitasuna funtsean da hainbat lagunek erakusten duten euskarazko jokoera elebakarra euskarazko jokoera ahalbidetzen duen eremu trinko eta jarrai batean.

Jokoera horrek toki egonkor eta eraginkorra ekar diezaioke euskarari taldearen bizitzan. Euskaraz egin nahi duenak euskaraz egiten du eremu horretan, pentsatu gabe, edonorekin, edonoiz eta edozertaz. Halakoarentzat ohiko bihur daiteke bertan euskaraz etengabe erabiltzea. Pentsatzekoa da halakoen berezko eraginez jende ugari ere euskarara jotzeko beharra sumatuko duela. Hala ere, ez genuke pentsatu behar kide guztiek eta beti euskaraz egingo luketenik Ahobizi Eremu batean. Oso litekeena da kide batzuek erdaraz egin nahi izatea eta batzuetan edo askotan halaxe egitea. Hori, ordea, ez da arazo. Gakoa da euskaraz egin nahi duenak eremu batean



edonorekin euskaraz egiteko trabarik ez izatea, eta, batez ere, euskaraz egin egitea. Ahobizi Eremu batean onartu beharko litzateke ele biko elkarrizketak maiz gerta daitezkeela.

Hizkuntza-harreman motak

Igarobide bakoitzean harreman mota banak hartzen du protagonismoa.

Lehen igarobidean (Erdal Eremutik Belarriprest Eremu Oinarrizkora), euskara-egileen eta euskara gutxi edo oso gutxi ulertzen dutenen arteko euskarazko harremana nabarmentzen da. Harreman horrek ezin du etengabea izan, hizkuntza-gaitasunean dauden mugek ez baitute horretarako aukerarik ematen, baina bai izan daiteke, eta komeni gainera, euskarazko komunikazioa egunero gertatzea, tarteka bada ere. Horrek izan beharko luke Erabilera Sostengu Sistema baten zeregin nagusia, Ulermen Unibertsala bizkortze aldera. Euskara-egileak izango lirateke Sostengu Sistema horren zutabeak, *tarteka* euskaraz egiten dutelarik.

Bigarren igarobidean (Belarriprest Eremu Oinarrizkotik Eremu Arruntera), gogoan dugu, bereziki, euskara-egileen eta euskara erdizka ulertzen dutenen arteko harremana. Halakoetan, “Ulerrizketarako” trebetasunak erabili beharko lituzkete solaskideek. Euskarazko komunikazioa, orduan, egoera gehienetara eramán liteke. Eta euskara-egileek *gehienetan* egin lezakete euskaraz.

Azkenik, hirugarren igarobidean (Belarriprest Eremu Arruntetik Ahobizi Eremura), euskara-egileen eta euskara ongi ulertzen dutenen arteko harremanak nagusitzen dira. Hartan, ez litzateke izango hizkuntza-gaitasun arazorik elkarrizketa euskaraz egiteko. Halakoetan, *beti* egin lezakete euskara-egileek euskaraz.

Euskarazko harremana (jarduna, elkarrizketa, komunikazioa...) eskatzen dute hiru igarobideek, intentsitate desberdinarekin bada ere. Intentsitate tartekoa lehen igarobidean. Intentsitate nabarmena bigarrean. Eta intentsitate erabatekoa hirugarrenean. Hiru igarobideak hizkuntza-erabileraren logikan ikusten ditugu. Logika horrek eskatzen du euskara-egileen euskarazko jarduna eta gainerako kideen ulertzeko gaitasuna, baina baita ere kide guztien arteko elkarrekiko adostasunak. *Hizkuntza-erabilera bera* eta *elkarrekiko adostasuna* dira, beraz, eremuen igarobideak bultzatzeko gako nagusiak⁴.

Igarobide horietako bakoitzak baditu berezko ezaugarriak, erritmoak, zailtasun mailak, baliabideen beharrak edota eragile motak (irakaskuntza erakundeak, aholkularitza erakundeak eta beste). Pentsatzekoa da igarobide guztiek ez dutela denbora-tarte bera behar izango eginbeharra burutzeko. Hala, esaterako, urte batzuetako lana izan daiteke Erdal Eremutik Belarriprest Eremu Arrunterako igarobidea egitea, baina agian hilabete batzuetakoa baino ezin daiteke izan

⁴ Elkarrekiko adostasuna, gutxienez, bi modutan eskura daiteke: 1) banakoen atxikimenduak masibo bihurtzen direnean, halako joera, halako uholde, halako giro sozial aldeko indartsua sortzen da; eta 2) gizarte-eremu finkatuetan, talde egituratuetan, erabaki kolektibo, kontrastatu eta kontzienteak hartzen direnean ere eremu horretako kideen ahaleginak norabide berean lerrotzen dira.

Belarriprest Eremu Arruntetik Ahobizi Eremurako jauzia. Hala ere, aldeak alde, hiru igarobideek badituzte komunean bi ezaugarri: 1) hizkuntza-erabilera erreala izatea, intentsitate desberdinetan bada ere, prozesuaren funtsezkoa motorra, eta 2) euskarazko jokaera horrek bere baitan solaskideen elkarrekiko adostasuna biltzea. Eta bi alderdi horiei begira badu Euskaraldiak egiteko garrantzitsua.

Esku hartze motak

Badira bi esku hartze mota hizkuntza-igarobideak bultzatzeko. Lehen **esku hartzea puntual, masibo eta orokorra** izan daiteke (Euskaraldiaren gisako esku hartzea), eta bigarrena, **urtetan zeharrekoa, lokalizatua eta zehatza** (Hizkuntza Plangintza eta zeregin profesionala eskatzen dituzten esku hartzeak). Bi esku hartze mota hauek guztiz osagarriak dira beren artean. Hala, esku hartze masibo orokor batek lor dezake, batetik, urteetako prozesu zehatz eta partikularrei ikusgarritasun berria ematea, eta prozesu txiki ugari elkarrekin agertzea testuinguru handiago eta indartsuago batean kokatuta; baina bestetik, esku hartze masibo orokor batek baldintzak sor ditzake, aitzakia eman dezake eta abian jar dezake hainbat esperientzia eta prozesu zehatz, iraunkor eta plangintza baten pean garatu daitezkeenak. Beraz eta laburrean esanda:

Euskaraldiak (esku hartze orokor gisa), batetik, esku hartze txikiak biltzen ditu bere baitan, eta, bestetik, prozesu berriak bultzatzen ditu, baina ezin du prozesu berri horien jarraipen eta garapen osoaz arduratu (esku hartze zehatz eta profesionalen zeregina baita hori). Euskaraldiak badu tartea hizkuntza-eremuen arteko igarobide guztietan eragiteko, baina prozesu osoaren jarraipena ez dago bere esku, eta ezin du egon gainera. Igarobide horiek guztiak toki ezberdinetatik bultzatu beharko lirateke ekinbide osagarrien bidez: erakunde publikoetatik, irakaskuntza erakundeetatik, hizkuntza-plangintzetatik, herri-ekimenetatik eta, jakina, Euskaralдитik ere.

Laburpena

IGAROBIDEAK	GAKOAK	HARREMAN MOTA	MODULAZIOA	IRAUPENA
1. Igarobidea Erdal Eremutik Belarriprest Eremu Oinarrizkora	Ulermen Unibertsala (eskolak, uler- saioak) + Erabilera Sostengu Sistema	Euskara-egileen eta gutxi edo oso gutxi ulertzen dutenen arteko harremana	Egunero tarteka euskaraz	Prozesu luzeak
2. Igarobidea Belarriprest Eremu Oinarrizkotik Eremu Arruntera	Ulerrizketarako prestaketa saioak	Euskara-egileen eta erdizka ulertzen dutenen arteko harremana	Egunero gehienetan euskaraz	Prozesu ertainak
3. Igarobidea Belarriprest Eremu Arruntetik Ahobizi Eremura	Ahobizitasuna	Euskara-egileen eta ongi ulertzen dutenen arteko harremana	Egunero beti euskaraz	Prozesu laburrak